

Hamasei urte ditut

Gaur jaio egin naiz, neska bat naizela esan dute, zigorrik merezi gabe belarrietan min handia sentitu egin dut, belarritakoak zirela entzun dut.

Gaur nire lehen urtebetetzea da, askotan bezala munduko neskarik ederrena izango naizela esan didate.

Bi urte ditut, amaren lagun bati musu emateko esan didate, ez dut nahi, ez dut ezertaz ezagutzen, musu ematera behartu naute.

Hiru urte ditut, Anderrekin nago, Ander nire laguna da, oso bikote polita izango garela entzun diet gure gurasoei.

Lau urte ditut, soineko bat jarri didate parkera joateko, oso deserosoa da jolasteko; gainera, amak kontuz ibiltzeko esan dit kulerokoak ez erakusteko.

Bost urte ditut, gabonak dira, opariak ireki ditut eta panpin oso polit bat oparitu didate, arazoa, ordea, nik kamioi bat eskatu nuela da.

Sei urte ditut, eskolan Peiok iletik tira egin dit, andereñoari esan diot eta horrek maite nauela esan nahi duela esan dit.

Zazpi urte ditut, Ainara eta Ander nire lagun minak dira, amak Ander nire mutilaguna den galdetzen dit egunero, ez dakit horrek zer esan nahi duen. Zergatik ez dit galdetzen berdina Ainararekin?

Zortzi urte ditut, eskolan futbolera jolastu nahi nuen, baina hori mutilen gauzak direla esan didate.

Bederatzi urte ditut, amonaren etxean nago eta ilea orrazten ari zait, mina egiten dit baina polita egoteko gaizki pasatu behar dela esan dit.

Hamar urte ditut, autoaren gurpilak aldatzera etorri gara, mekanikoak ez dio amari kasurik egiten eta aitari hitz egiten dio bakarrik.

Hamaika urte ditut, hilekoa etorri zait lehen aldiz, emakume bihurtu naizela esan dit amak.

Hamabi urte ditut, lagunekin atera naiz lehen aldiz, etxetik atera baino lehen galtzak aldatu behar izan ditut motzegiak zirela esan didatelako.

Hamahiru urte ditut, albisteetan hamasei urteko neska bat bortxatu dutela entzun dut, taberna batean nago eta ondokoei albiste honi buruz hizketan entzun diet:

Zer zeraman jantzita?

Seguru edan egin zuela.

Zer egiten zuen kaletik bakarrik?

Hamalau urte ditut, lehenengo aldiz festa batera joan egin naiz, lagun batzuekin nire amari itxaroten ari naiz, auto bat gerturatu zaigu, bertan gizon bat zegoen, helbide bati buruz galdezka hasi zaigu, autoa berehala martxan jarri egin du masturbatzen hari zela konturatu garenean, gurasoei ez diet ezer ez esan, hau jakinda, bihar ateratzen utziko ez didatelako, nire segurtasunarengatik suposatzen dut, lagun batzuei esan diet, gizona ederra zen galdetu didate.

Hamabost urte ditut, kaletik nindoala gizon batekin topatu naiz, gauza desegokiak oihukatzen hasi da, berrogei urte dituela esango nuke, beldur naiz, ez da gertatzen zaidan lehen aldia, azkenekoa ez dela suposatzen dut, familiari kontatu diot eta ez dela hainbesterako esan didate, piropoak betidanik gertatzen direlako.

Hamasei urte ditut, egoera ez da batere aldatu, noiz arte egongo gara horrela? Zergatik izan behar dut beldurra? Zergatik neurtzen da nire balioa nire itxurarengatik eta ez nire izaerarengatik? Zergatik egun horretan ez zioten kasurik egin nire amari eta nire aitari bai? Zergatik erabili behar dut soineko bat eta gainera kontuz ibili nik nahi nuen bakarra parkera jolastera joatea bazen? Zergatik izan behar da Ander nire mutilaguna benetan maite dudana Ainara bada? Zergatik da emakume baten errua bortxatzerakoan mozkortuta badago, baina gizona mozkortuta dagoenean bortxaketa justifikatzen dugu? Zergatik ezin dut nahi dudana arropa eraman egoera berdina bizitzen baditut bai arropa asko edo gutxi erabilia? Zergatik ez dugu hezkuntza hau aldatzen eta beldurra ezarri beharrean errespetua ezarri? Zergatik txikitatik printzesa bat izaten erakusten didate handitzerakoan benetan beharko dudana gerlari bat izatea izango bada? Zergatik?